

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko martxoaren 6a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da Foruzaingoari buruzko zenbait neurri har ditzan. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da zenbait neurri har ditzan Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duen martxoaren 24ko 7/2011 Foru Legeari buruz. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua kanpoan kontratatzeko prozesua geraraziko ote den jakitekoa, Marisa De Simón Caballero andreak egin (5. or.).
- Galdera, jakiteko nola eraginen dien Nafarroaren 2011ko defizitaren desbideraketak Nafarroako kontuei eta 2012ko aurrekontuei, Juan Carlos Longás García jaunak egin (6. or.).
- Galdera, Barcina andreak Madrilen egindako adierazpenei buruzkoa, zeinetan esaten baitzuen Bilduk beldurra darabilela bere helburu politikoak lortzeko, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (6. or.).
- Galdera, jakiteko zertan den Gardentasunari buruzko Foru Lege proiektuaren izapidetzea, Eloy Villanueva Cruz jaunak egin (7. or.).
- Galdera, aurrekontuan murrizketak jasanen dituzten kontusailei buruzkoa, Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, haur-hezkuntzako bigarren ikastetxe bat eraikitzeko aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, 2011ko aurrekontuen kargura protokolo kontuetan eginen den gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroaren Egunarekin lotuta eginiko gastuen zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, pertsona fisiko, autonomo eta enpresei zor zaien kantitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

- Galdera, oinarrizko errenta eskatzeko egin beharreko izapideak arintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Reyno Arena kiroldegiaren ustiapen-kontuen emaitzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, hogeita bi pertsona Nafarroa ezagutzera gonbidatuta egin den kanpaina turistikoaren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “NA-5330 errepedeko azpiko pasabidea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, pertsonak ETArekin ekintzetatik babestera urtealdian bideratzen den zenbateko orokorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena Puiuko Udalarekin, bideak konpontzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Udal instalazioetako eta eraikinetako, kaleetako eta errepedeetako jarduketa bereziak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foruzaingoa-ri buruzko zenbait neurri har ditzan.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foruzaingoa-ri buruzko zenbait neurri har ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2012ko otsailaren 23ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Jabeldura Foruzaingoa-ri buruzko politika orokorrari buruzkoa zen, eta zehazki kidegoaren garapenari, polizia integrala bihurtzeari, negozio-kolektiboari, barne sustapenari, prestakuntzari eta 55 urtetik aitzina bigarren enplegua edo destino izateari buruzkoa.

Jabelduraren eztabaidan, taldeen jarrera ikusita, garbi gelditu zen gai horiek guztiak jorratzeke

daudela Nafarroako Poliziei buruzko Legearen azken aldaketaren ondoren.

Iragarri zen Nafarroako Poliziari buruzko Plan Zuzendari bat prestatuko dela, eta mahai gainean jarri ziren, batetik, 1.200 foruzain-lanpostura iritsi arteko lanpostuen deialdia egiteko zailtasunak eta, bestetik, gainerako neurrien zehaztugabetasuna, eta horregatik ari zirela prestatzen plan zuzendaria.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du bere borondatea dela Foruzaingoa polizia integrala izatera iritsi dadin, polizia-eginkizunak berezkoak dituen eginkizun guztiak bere gain hartuta Nafarroan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Parlamentu-
ra igor dezan Poliziari buruzko Plan Integrala, egun prestalanetan dagoena, eztabaidatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foruzaingoko sindikatu-
etako ordezkarietako negoziatioei ekin diezaien berriro eta, ondoren, Nafarroako Parlamentura igor dezan Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzeko proiektua, urriaren 25eko 15/2010 Legearen bidez hein batean aldatu zena, kidego horri dagozkion gaiak garatze aldera: legegintzaldi honetan polizia integral bat lortzea, kidegoan sartzeari eta barne-sustapenari buruzko auzien araubidea, negoziatio kolektiboa eta adin batetik aurrerako bigarren enpleguak edo destino osagarriak.

Iruñean, 2012ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duen martxoaren 24ko 7/2011 Foru Legeari buruz.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duen martxoaren 24ko 7/2011 Foru Legeari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2012ko otsailaren 23ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Justizia arloko eskumenak garatzeko politika orokorraren gaineko jabelduraren eztabaidan agerian gelditu zen arazo bat sortu duela Estatuko Gobernuak Nafarroako Administrazio Publikoei

buruzko 7/2011 Foru Legeko zenbait artikuluren aurka konstituziokontraotasuneko 55/2012 zenbakiko errekurtsioa aurkeztu izanak.

Nafarroako Gobernuaren ordezkariak nahiz parlamentu-taldeetako eledunek jabelduraren eztabaidan adierazitakoek agerian utzi zuten ordezkari politiko ia guztien nahia, 7/2011 Foru Legeari eustekoa, zuzenbidearen arabera delako. Agerian gelditu zen, orobat, transferitutako langileek emandako zerbitzuak aztertu beharra dagoela, bai lan-negoiazioari bai prestakuntzaren egokitasunari dagokienez.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Konstituzio Auzitegian osorik defenda dezan Administrazio Publikoei buruzko martxoaren 24ko 7/2011 Legearen legekotasuna, eta lege hori bertan behera uztearen aurka azal dadin.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kasuko negoziatioak has ditzan Mahai Orokorrean, 7/2011 Foru Legean xedatutakoa garatu eta aplikatze aldera.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat presta dezan justizia arloko zerbitzuak emateko egiturak berregokitzeari buruz, barruti judizialak berrantolatuz eta haien lan-zamaren garapena funtzio-parametroetan mantenduz.

Iruñean, 2012ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua kanpoan kontratatzeko prozesua geraraziko ote den jakitekoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua kanpoan kontratatzeko prozesua geraraziko ote den jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Comptos Ganberak txostena egin zuen, bere lehendakari Helio Robledo Cabezas jaunak sinatuta, "Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzuari buruz" Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaile Sanz Barea jaunak sinatutako txostena dela-eta. Txosten hori ikusita, ondokoa jakin nahi dut:

Osasun Departamentuak Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzua kanpoan kontratatzeko prozesua geraraziko al du?

Iruñean, 2012ko otsailaren 29an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, jakiteko nola eraginen dien Nafarroaren 2011ko defizitaren desbideraketak Nafarroako kontuei eta 2012ko aurrekontuei.

JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa nola eraginen dien Nafarroaren 2011ko defizitaren desbideraketak Nafarroako kontuei eta 2012ko aurrekontuei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, martxoaren 8ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda jaunak ahoz erantzun dezan:

Estatuak Nafarroaren 2011ko defizitari buruz egiten duen estimazioa eta BPGaren % 1,3aren helburuarekiko desbideraketa ezagututa, desbideraketa horrek nola eraginen die Nafarroako kontuei eta, zehazki, 2012ko aurrekontuei?

Iruñean, 2012ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Galdera, Barcina andreak Madrilen egindako adierazpenei buruzkoa, zeinetan esaten baitzuen Bilduk beldurra darabilela bere helburu politikoak lortzeko.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Barcina andreak Madrilen egindako adierazpenei buruzkoa, zeinetan esaten baitzuen Bilduk beldurra darabilela bere helburu politikoak lortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak martxoaren 8ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Yolanda Barcinak bilerak egin eta hitzaldiak eman zituen aurreko astean Madrilen. Horietan, besteak beste adierazi zuen Bilduk beldurra darabilela bere helburu politikoak lortzeko. Hori dela eta, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

• Zer beldur da hori? Zer helbururekin egin zenituen balorazio horiek?

Iruñean, 2012ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko zertan den Gardentasunari buruzko Foru Lege proiektuaren izapidetzea.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zertan den Gardentasunari buruzko Foru Lege proiektuaren izapidetzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Gardentasunari buruzko Lege proiektua iragarri zuen iragan urtarrilaren 20an. Zertan da proiektuaren izapidetzea?

Iruñean, 2012ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, aurrekontuan murrizketak jasanen dituzten kontusailei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du aurrekontuan murrizketak jasanen dituzten kontusailei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 16ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, aurtengo ekitaldiko Nafarroako aurrekontuan eginiko murrizketei buruz (PES-00164). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Informazio hori Nafarroako Gobernuaren webgunean eskura daiteke Gobernuak, iragan irailaren 28an, dagokion erabakia hartu zuen egunetik bertatik.

Doikuntzarako irizpideak departamentu bakoitzak erabaki ditu, bere lehenetasunak kontuan hartuta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 5ean

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, haur-hezkuntzako bigarren ikastetxe bat eraikitzeko aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera egin du haur-hezkuntzako bigarren ikastetxe bat eraikitzeko aurreikuspenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 16ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera egin du, Eguesibarko udalerrian Haur Hezkuntzako bigarren ikastetxe bat eraikitzeko aurreikuspenari buruz (8-11/PES-00166). Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuak eginiko txostenean oinarrituta:

“Gaur egun, Sarrigurengo Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren instalazioak nahikoak dira Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako bost lerro osorik hartzeko. Instalazio horiek nahikoak dira Eguesibarko udalerriko ikastetxe publikoetan 2011/2012 ikasturtean izandako eskolatzeko eskaerari erantzuteko, eta, eskolatzeko kopuruari buruzko aurreikuspenen arabera, nahikoak izanen dira 2012/2013 ikasturteko eskaerari erantzuteko ere.

Horrenbestez, Hezkuntza Departamentuak ez du asmorik epe laburrean beste ikastetxe publikorik eraikitzeko Eguesibarren. Hala ere, 2012ko otsaileko aurrematrikulazioaren ondoren, Hezkuntza Departamentuak eskaeraren bilakaera aztertuko du eta, beharrezkoa bada, dagozkion neurriak hartuko ditu 2013/2014 ikasturterako.”

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 5ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, 2011ko aurrekontuen kargura protokolo kontuetan eginen den gastuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du 2011ko aurrekontuen kargura protokolo kontuetan eginen den gastuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, 2011ko aurrekontuen kargura protokolo kontuetan eginen den gastuari buruz (8-11/PES-00173). Hona Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren erantzuna:

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak badu kontusail bat

2011rako aurrekontuan –"Protokoloko eta ordezkatzetxe-lanetako eginkizunak" izeneko B22001 B2200 2261 921100 kontusaila–, hasiera batean 280.195 euro zituen. Gaur egun, 14.264 euro daude kontusail horretan.

Zenbateko hori, zeina osorik betetzea aurreikusten baita, erabiltzen da ekitaldi ofizialak antolatzeko –diru horrekin finantzatzen dira lokalen alokairua, megafonia zerbitzuak, argiztapena, moldaketa, ostalaritza eta abar–, bai eta Nafarroako Gobernuaren egoitzaren –Nafarroako Jauregi-ko lehen solairua– ohiko gastuak ordaintzeko ere: ekipoen alokairua, lehengaiak eta sukaldaritza-zerbitzuak, garbitegia, eta abar.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 7an

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroaren Egunarekin lotuta eginiko gastuen zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroaren Egunarekin lotuta eginiko gastuen zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzuteko, Nafarroaren Egunarekin lotuta eginiko gastuen zenbatekoari buruz (8-11/PES-00178). Hona Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako aurrekontu orokorrean bada kontusail bat "Nafarroaren Eguneko ospakizunak" izeneko, 250.000 euro dituen –"Nafarroaren Eguneko

ospakizunak" izeneko B20001 B2200 2269 921102 kontusaila–.

Nafarroako Gobernuak erabaki du murrizketa ekonomikoak egiteko zenbait ildo orokor aplikatzea, eta, horren ondorioz, kontusail horren egungo saldoa 200.000 eurokoa da.

Murrizketa horren eraginez, aurreko ekitaldietan egiten ziren zenbait jardura, eta beste jardura batzuk murriztu egingen dira; hala ere, oraindik ez da programa zehaztu. Egin den gauza bakarra da Gazteen Jaialdia kontratatzekeko prozedura abian jartzea –Kontratazioaren Atarian–, Nafarroako Kutxa Fundazioak finantzaketan parte hartzen baitu. Halaber, Nafarroako herri desberdinetako koru eta bandekin harremanetan jarri gara, jakiteko abenduaren 3an kontzertuak emateko prest ote dauden.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, pertsona fisiko, autonomo eta enpresei zor zaien kantitateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du pertsona fisiko, autonomo eta enpresei zor zaien kantitateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 16ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzuteko, jakiteko zenbatekoa den Foru Administrazioak pertsona fisikoei, autonomoei eta enpresei zor diena fakturazioaz edo betebehar-aitorpenaz geroztiko 50 egun baino gehiagoko atzerapenarekin (PES-00161). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Eskura dugun azken informazioa –2011ko bigarren hiruhilekoari buruzkoa– Estatuko Admi-

nistrazioaren Kontu-hartzailletza Orokorrera igorri da, Merkataritza eragiketetan berankortasuna eragozteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Informazio horren arabera, Nafarroako Gobernuko departamentuek ez diete ezer zor, ez pertsona fisikoei ez enpresei, fakturazioaz edo betebehar-aitorpenaz geroztiko 50 egun baino gehiagoko atzerapenarekin, betiere hornitzaileak

informazio nahikoa aurkeztu badu ordainketa egin ahal izateko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 6an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, oinarrizko errenta eskatzeko egin beharreko izapideak arintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Beltrán Villalba andreak galdera egin du oinarrizko errenta eskatzeko egin beharreko izapideak arintzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba jaunak galdera egin du Oinarrizko Errentari buruz (PES 172/11). Hona Nafarroako Gobernuko Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Parlamentuan eginiko lehen agerraldian azaldu nuen gisara, eta datozen egunetan eginen dudanean ere informatuko dudana bezala, esan behar da Oinarrizko Errentaren programa seriooki birplanteatu beharra dagoela eta hausnarketa sakona egin behar dela –eta horretan ari gara–, eta horren guztiaren ondorioak izan beharko luke bi ibilbidetan gauzatuko litzatekeen araudi berria.

Programa hori sortu zen gizartearen bazterturik dauden pertsonen laguntzeko. Baina krisiaren ondorioz, egoera berri batean gaude. Hala, eskabide eta izapidetutako espedienteen kopurua modu esponenzialean handitu da, eta horrek eragin du atzerapen handia izatea laguntzak emate-

rakoan. Badira oinarrizko errenta jasotzen duten pertsonak, ez bazterketa-egoeran daudelako, lanpostua galdu eta prestazioak agortu dituztelako baizik. “Koiuntural” gisa ezagutzen ditugunak dira; izan ere, pertsona horiek behar dutena da haien enplegagarritasun-maila areagotzea, prestakuntza-zirkuituen bidez, enplegua sustatzeko politika aktiboen esparruan, eta horren bitartez, enplegu berri bat lortzeko helburua izatea, hori baita, izan ere, neurririk integratzaileena.

Argi dago programa, orain dagoen moduan, ez dela bidezkoa eta ez diola erantzuten jatorrian izan zuen filosofiari; izan ere, ez ditu alderdi integratzaileak lantzen. Aldiz, dagoen eskariaren ondorioz, laguntza ekonomikoko neurriak aplikatzen ditu soilik, eta horiek, beharrezkoak badira ere, ez dute egoera konpontzen, kroniko bihurtu baizik. Hori dela eta, programa birdiseinatu eta birformulatu egin behar da, pertsonen zenbait neurri profil eta gaitasun profesionalen arabera aplikatzeko, eta beste batzuk, berriz, norbanakoari begira garatzeko, egoera sozialen arabera.

Orain arte esandakoa ezertan galarazi gabe, Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentua kudeaketa informatikorako eta oinarrizko gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko tresna berriak diseinatzen ari da, espedienteen izapidetzea arintze aldera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Reyno Arena kiroldegiaren ustiapen-kontuen emaitzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Reyno Arena kiroldegiaren ustiapen-kontuen emaitzari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Pabellón Reyno Arena izenekoaren ustiapen-aurreikuspenei buruz (PES 175/11). Hona Nafarroako Gobernuak Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

2009ko urriaren 1ean eta 2010eko abenduaren 16an Nafarroako Parlamentuan eginiko agerraldietan, garai hartako Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak informatu zuen Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia buruz. Agerraldi horietan, kontseilariak gai horri buruzko datuak eman zituen, zeinak islatzen baitira IDOM enpresak, aldeztu aurretik egindako txostenean Nafarroako Gobernuari Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia eraikitze laguntza tekniko eman zion aldetik.

Gaur egun, uste dugu IDOMek eginiko txosten hori eguneratu beharra dagoela –bertan kudeake-

ta-eredu eraginkorra aztertzen da, maila guztietan, Iruñearen eta bere eragin-eremuaren ezaugarrien antzekoak dituzten hirietan funtzionamenduan dauden antzeko ekipamenduak kontuan hartuta; izan ere, egoera ekonomikoa eta soziala nabarmen aldatu da.

Hori dela eta, enpresa publikoen berrantolamenduaren ondorioaz sortutako “Navarra Deporte y Ocio, S.L.” enpresa publikoak aipatu txostena eguneratu beharko du, eta une horretan aurkeztuko dira ateratzen diren ondorioak.

Horrekin lotuta, esan behar da 2011ko urriaren 1ean fusionatu zirela “Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A.U.”, “Circuito Los Arcos, S.L.” eta “Territorio Roncalia, S.L.U.” enpresak. Horretarako, “Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A.U.” enpresak “Territorio Roncalia, S.L.U.” enpresa xurgatu zuen eta, aldi berean, “Circuito Los Arcos, S.L.” enpresak “Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A.U.” xurgatu zuen eta “Navarra Deporte y Ocio, S.L.” izena hartu zuen. Aipatu enpresa departamentu honi atxikita dago eta, Gobernuak erabaki zuen moduan, kiroldegia kudeatuko duena enpresa publiko hori izanen da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Elena Torres Miranda

Galdera, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa kentzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Marisa De Simón Caballero andreak galdera egin du koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa kentzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa kentzeari buruz (8-11/PES-00168). Hona hemen Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Parlamentuan adierazi den moduan, Koloneko Minbiziaren Detekzio Goiztiarrerako Plana ez da kendu.

2.- Espainian gaur egun abian diren programe-tatik (Red de programas españoles de cribado. www.cribadocancer.es) lorturiko adierazleetan

oinarrituta, eta kontuan hartuta programa aplikatzen zaiela Nafarroan bizi diren 50 urtetik 69ra bitarteko pertsoneri, % 60ko hasierako parte-hartzearekin, kalkulatu da lehenbiziko itzulian 270 tumore gaizto eta arrisku handiko 1.800 adenoma detektatu ahalko lirakeela urtean.

3.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak irailaren 23ko 1899/2011 Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko kostuen eta prezioen lan-talde teknikoa sortu baitzen.

Legegintzaldi hasierako hitzaldian jadanik adierazi nuenez, Osasun Departamentuak ez du inolako zalantzarik koloneko minbizia detektatzeko populazioaren screening programa babesten duen ebidentzia zientifikoari dagokionez, eta, halaber, prebentzio-politiken aldeko apustua egiten du; hala ere, screening programa hori ezarri aurretik beharrezkoa da gaur egun egiten ari den ikerketa teknikoa amaitzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, hogeita bi pertsona Nafarroa ezagutzera gonbidatuta egin den kanpaina turistikoaren kostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amaya Zarranz Errea andreak galdera egin du hogeita bi pertsona Nafarroa ezagutzera gonbidatuta egin den kanpaina turistikoaren kostuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak galdera egin du Turismoko publizitate kanpainetako baten gaineko zenbait gairi buruz (PES-00170). Hona Nafarroako Gobernuo Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Galderaren xede den ekintzaren helburu nagusiak ziren interesa eta sinpatia piztea ikusle/entzu-

le asko dituzten programen arduradun batzuegan.

Ekintzak “No tienes excusa para escapar” izena zuen eta marketin zuzen eta promoziozkoa izan zen, eta Nafarroako Gobernuaren 2011ko Turismo-marketineko Plan Operazionalan jasota zegoen.

Aurrekontu osoa –sormena, ekoizpena, argazkiak, bidalketa eta harreman publikoak barne– 24.790 eurokoa da, eta hedabideetan izandako eraginaren itzulkin ekonomikoa, Gaps enpresaren txostenaren arabera, izan da eginiko inbertsioa baino bost aldiz handiagoa.

Kanpaina iritzi publikoaren lider ezagunei zuzenduta zegoen. Zehazki, telebistako eta irratiko ikusle/entzule gehien dituzten saioetako 22 aurkezle aukeratu ziren. Horien artean zeuden Ana Pastor, Anne Igarteburu, Mariló Montero eta María Avizanda. “Antena 3” katetik, ondokoak aukeratu ziren: Matías Prats, Karlos Arguiñano, Carlos Sobera, Susana Griso, Jaime Cantizano, Pablo Motos eta Florentino Fernández. “Cuatro” katetik, Jesús Vázquez eta Hilario Pino aukeratu ziren. Bestalde, “Telecinco” katetik ukeratutako aurkezleak hauek izan ziren: María Teresa Campos, Jorge Javier Vázquez, Ana Rosa Quintana, Jordi González eta Pedro Piqueras. “La Sexta” katetik, “El Gran Wyoming”, Buenafuente eta Elena Resano aukeratu ziren, eta “Cadena 100” irratitik, berriz, Javi Nieves aukeratu zen.

Gonbidapenari baiezkoa ematea baino, bilatzen zena zen aurkezle horiei ezusteko atsegin bat ematea eta beren programetan hitz egin zezatela Nafarroari buruz, helmuga turistiko gisa, eta ideia-oren originaltasuna komenta zezatela. Halaber, ekimenaren helburuetako beste bat zen interesa piztea halako eragina duten aurkezleen inguruan, helmuga turistiko bat zabaltze aldera.

Horregatik, ez da harritzekoa aurkezle horietatik inor ez etorri izana Nafarroara bisitan, eta bakar batek adierazi izana ahal duenean etorriko dela Foru Komunitatera.

Horrenbestez, ez da gasturik izan egonaldien-gatik.

Aurkezle gehienek nabarmendu zuten ideia-oren originaltasuna, eta esker ona adierazi zuten. Programetako erredakzioetan txantxak egin zituzten pertsonaien “dobleekin”, eta aurkezleek berek ekimena komentatu zuten beren saioetan eta beren silueten argazkiak bidali zituzten Turismora, ekimena gogoratze aldera.

M^a Teresa Camposek bere doblearekin batera hasi eta amaitu zuen Qué tiempo tan Feliz saioa, kanpaina aipatuz, behin baino gehiagotan. Javi Nieves, Susana Griso, Mariló Montero eta Jorge Javier Vázquezek ere aipatu zuten beren saioetan.

Halaber, kanpainak oihartzun nabarmena izan zuen hedabideetan (prentsan, irradian, telebistan eta Interneten), eta oso aipatua izan zen sare sozialetan, bai eta ekimenaren protagonista izan ziren aurkezleen aldetik ere.

Irudi-itzulkin kontuan hartu gabe, ekimenak itzulkin garbia izan du promozioari eta publizitateari dagokienez. Gaps agentziak eginiko lehen balorazio ekonomikoren arabera, hedabideetan izandako eragina (prentsa idatzia, telebista eta Internet), Nafarroako Gobernuarentzako publizitate-kosturik gabekoa, 133.899 eurokoa izan da. Aldiz, inbertsioa 24.790 eurokoa izan zen.

“Antena 3” eta “Telecinco” kateetako Espejo Público eta Qué tiempo tan feliz programetan bost aldiz aipatu zen ekimena, bederatzi minutuko iraupenarekin eta 2.760.479 ikusleren aurrean. Ekimena askotariko hedabide idatzietan agertu zen, hala nola Periódico de Cataluña, Diario de Córdoba, Periódico de Aragón edo Periódico de Extremadura egunkarietan. Interneten, ondoko hedabide digitaletan agertu zen: 20minutos.es, ABC On Line, Eleconomista.es, Europa Press On Line, Finanzas.com, Que.es, reporterodigital.com, Yahoo Noticias, El Periódico de Catalunya, eta abar. Tokiko hedabideetan ere agertu zen berria.

Nafarroako Gobernuaren Turismoko Zuzendaritza Nagusiak kanpainaren originaltasuna aipatzen zuten mezu elektronikoak eta idatziak jaso zituen.

Azaldutako guztiagatik, uste dugu ekimenaren emaitzak egokiak izan direla, helburuak bete egin direla eta marketin eta harreman publikoen alorreko ekimen interesgarria, berria, atsegina, hedabideetan presentzia izan duena eta Nafarroarentzat, helmuga turistikotzat hartuta, errentagarria izan dela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urrian

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, jakiteko zein den “NA-5330 errepedeko azpiko pasabidea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “NA-5330 errepedeko azpiko pasabidea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Departamentu honen 2011ko aurrekontuko “Pitillas-Santakara NA-5330 errepedeko azpiko pasabidea” izeneko kontusaila betetzeari buruz. Hona Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako 2011rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean 150.000 euro aurreikusitako kontusail horretarako.

Zuzenketaren zioan azaltzen zen moduan, xedea da beheko pasabide bat egitea sakanetik datozen urak bideratzeko eta, hala, Pitillasko hiri-guneko kalte materialak saihesteko, Nafarroako Ubidearen ondoriozko lurzati-berrantolamendua egiten den bitartean.

Riegos de Navarra, S.A. enpresarekin izandako elkarrizketetan adierazi da lurzati-berrantolamenduaren arabera eginiko jarduketa ondokoa izan dela: “Arroyo de la Nava” izeneko erreka Cidacos ibaiarekin lotzea Pitillas baino gorago, emari

ertainak eta uholdeetakoak hustu ditzan. Jarduketa horrek Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren baimena du. Lanak amaituta daude. Honekin batera doa jarduketaren aurretiko eta ondorengo egoerari buruzko planoen kopia.

“Arroyo de la Nava” izeneko erreka, Beire eta Murillo el Cuende artean dagoena, ureztatzeko uren soberakinen hustubide bihurtu da, eta ez dauka Cidacos ibaiaren uhaldiak husteko behar adinako tamaina.

Erreka horrek behetik gurutzatzen du NA-5330 errepedea, eta egun duen eremua bi metro bider metro batekoa da.

Aurrekontuei aurkeztutako zuzenketaren xedea zen eremu berri bat eraikitzea errepedearen azpian, egungoa baino handiagoa, Cidacos ibaiaren uhaldiak husteko gai izanen dena.


Ez denez hustubide bat egin behar, ez du zentzurik beheko pasabidearen sekzioa handitzeak. Hala ere, lurzati-berrantolamenduaren ondoriozko jarduketan artean, 800 mm-ko hodi bat sartuko da eta horrek eremu ureztagarriaren sekzio hidraulikoa handituko du.


Bestalde, Uraren Zerbitzuak 2011ko otsailaren 2an eginiko txostenean esaten da eskatutako konponbidea zaila eta garestia dela, eta gomendatzen da ikerketa hidrologiko eta hidrauliko bat egitea, zehaztasun handikoa, aukeratzen den konponbidearen bideragarritasuna eta eraginkortasuna ziurtatze aldera.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bategineko 194.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2011ko urriaren 7an.

Sustapen eta Etxebizitzako kontseilaria: Anai Astiz Medrano





Galdera, pertsonak ETaren ekintzetatik babestera urtealdian bideratzen den zenbateko orokorrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du pertsonak ETaren ekintzetatik babestera urtealdian bideratzen den zenbateko orokorrari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 16ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, pertsonak ETaren ekintzetatik babestera bideratutako kostuekin zerikusia duten zenbait gairi buruz (PES-165/2011). Hona Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, Foruzaingoaren bitartez, segurtasun zerbitzua ematen die Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariak erabakitako Nafarroako agintariei, Nafarroako Poliziegi buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legearen 9. c) artikuluan ezarritakoaren arabera, bertan ezartzen baita foru erkidegoko polizia kidegoak berezkoak dituen eginkizunen artean dagoela "Foru Komunitateko agintarien babesaz eta segurtasunaz arduratzea". Aipatu xedapena aplikatze aldera, segurtasun pertsonalerako sistema integralak ezartzen dira, arriskua edo arriskuaren balizko jatorria zehaztu gabe; hori dela eta, ezin da egin foru parlamentariak "pertso-

nak ETaren ekintzetatik babestea" gisa definitzen duenaren mugatze ekonomikorik. Hau da, Foruzaingoak emandako segurtasun zerbitzuak ez dio erantzuten bakarrik talde jakin batek sorturiko arriskuari; aldiz, zerbitzuak kontuan hartzen du zaindutako agintaria arrisku egoeran jar lezakeen edozein ekintzaren aurreko segurtasun integrala.

Polizia-antolamenduaren barruan eginkizun horiei atxikitako giza baliabide eta baliabide materialak jasota agertzen dira Nafarroako aurrekontu orokorraren kapitulu ekonomikotan, bai langileen gastuetan (I. kapitulua), bai funtzionamenduko gastuetan (II. kapitulua) eta inbertsio gastuetan (IV. kapitulua).

Gaur egun, Foruzaingoaren Herritarren Seguratasunerako Arloko Agintariak Babesteko Dibisioak 86 kide ditu, eta guztiak dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko funtzionarioak. Horien ordainsariak dira erregelamenduzko araudian dibisio horretako kideei aitortutakoak. Ordainsari horiek ez dira finkatzen haiek lanean aurre egin ahal dioten arrisku zehatzaren arabera; aldiz, kontuan hartzen dena da pertsonak eta ondasunak zaintzeko lanak modu eraginkorrean egitea, arriskuaren jatorria delinkuentzia arrunta edo antolatua izanda ere. Gauza bera esan daiteke Foruzaingoaren unitate horrek erabiltzen dituen baliabide materialei buruz ere, ibilgailuak barne.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 13an

Lehenbiziko lehendakariorde eta Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena Puiuko Udalarekin, bideak konpontzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Hitzarmena Puiuko Udalarekin, bideak konpontzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Hitzarmena Puiuko Udalarekin, bideak konpontzeko" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz. Hona Nafarroako Gobernu Lehendakarietzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

1) Toki Administrazio kontseilariaren ekainaren 24ko 326/2011 Foru Aginduaren bidez, 50.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion Pui-

uko Udalari, "Camino del Monte" izeneko bidearen zoladura-lanak finantzatzeko, eta dirulaguntza arautzeko oinarriak ezartzen dituen hitzarmenaren testua onetsi zen.

2) Zenbatekoa eta kontzeptua bat datoz Nafarroako 2011ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 11/2010 Foru Legean jasotako "Bideak konpontzea" izeneko 211003-21000-7609-45A200 kontusailean agertzen direnekin.

3) Xede horretarako aurkeztu zuten proiektuak 90.268,39 euroko gutxi gorabeherako kostua du, eta lehen aipatu hitzarmenaren bosgarren klausulan ezartzen denez, lanak 2011ko abenduaren 15a baino lehen amaitu behar dira eta, halaber, hitzarmenaren zehazturiko dokumentazio guztia aurkeztu behar da.

4) Gaur den egunean, Puiuko Udalak ez du aipaturiko inbertsioa egin izana egiaztatzen duen dokumentaziorik aurkeztu; horrenbestez, ez zaio inolako ordainketarik egin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 14an

Lehendakarietzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakiteko zein den “Udal instalazioetako eta eraikinetako, kaleetako eta errepideetako jarduketa bereziak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakitekoa zein den “Udal instalazioetako eta eraikinetako, kaleetako eta errepideetako jarduketa bereziak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Udal instalazioetako eta eraikinetako, kaleetako eta errepideetako jarduketa bereziak" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

2011ko ekainaren 30ean, eta aipatu kontusailari dagokionez –211003-21000-7609-261600 kontusaila–, Toki Administrazio kontseilariak, zenbait foru aginduren bidez, 621.520 euroko dirulaguntza

eman eta haren oinarri arauemaileak ezartzen dituzten hitzarmenak onetsi zituen. Dirulaguntza ondoko toki entitateen artean banatu zen, agertzen diren zenbatekoen arabera:

Allo: Igerilekuak egokitzea: 80.000,00 euro.

Andosilla: Kamioien aparkalekuaren 2. fasea: 200.000,00 euro.

Berbintzana: Hilerriko bidea eta aparkalekua: 40.000,00 euro.

Miranda Arga: Udaletxeko igogailua (2. fasea): 70.983,00 euro.

Sesma: Argiteria (2. fasea): 30.000,00 euro.

Aras: Kaleak zolaberritzea: 100.537,00 euro.

Valtierra: Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako ikastetxeko urbanizazio-lanak eta sarbideak: 100.000,00 euro.

Halaber, aipatu eguna baino lehen ordainketa bakarra egin da, Alloko igerilekuak egokitzea. Ordainketa 80.000 eurokoa izan da eta 2011ko ekainaren 30eko 738/2011 Ebazpenaren bidez egin da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 14an

Lehendakari-tzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli